

Haizeak, Frantziatik zetozen

Paradójicamente, el siglo XIX es el de la supresión reiterada de los Institutos Religiosos, y al mismo tiempo el de su restauración y multiplicación. La Revolución Francesa, la mayoritaria reacción católica ante ella, el anticlericalismo republicano, el ultramontanismo católico y el laicismo militante condicionaron no solo la historia francesa y española, sino también la vasca.

Boteretik legez eta armaz, baina herritar askoren iritzien kontra egiten diren erreformek arrakasta zaila izan ohi dute; horrelakoa da, hain zuzen, Iraultza Frantsesaren eta Liberalismoaren kasuan, guk hemen darabilgun Institutu Ereljiosoekiko politikaren historia. Uste daiteke Ordena eta Kongregazioen erreformak beharrezkoak zirela, baina arrazoi askorengatik Iraultzak ezin izan zituen horiek elkarrizketa bidez burutu.

Iraultza, Eliza gobernatzen (1789...)

Frantzia, Espainian bezalatsu, Aita Santuek aginte zibilari, Erregeei alegia, eliz gobernura-ko eskubide zabalak eman zizkieten. Monarkia frantsesari gobernu-eskubide horiek Frantses I.a erregearekin sinatutako Konkordatu batek aitortu zizkion (1516); besteak beste, horrelako akordioetan, Gotzainak sagartzeko eskumen kanonikoa Aita Santuak gorde ohi zuen, baina izendatzeko hautapena Erregeren esku zela. Hori eta bestelako eliz eskubiderik ere ez zitzaion falta izan Koroari.

Erregimen horren barruan bizi izan zen Frantziako Eliza katolikoa, Iraultzako erreformak ezarri ziren arte. Arima-ardurarik ez zuten elizgizonen karguak kentzea erabaki zuen orduan "Constitution civile du clergé" deituak (1791), eta berorren lehen artikuluen arabera, erli-

ji osoak ere desagertaraztea erabaki zen. Elizak, oso-osorik, Estatuaren eskuetara pasatu behar zuten, baina oraingoan Aita Santuagandik ere banatuta, eta Errepublikaren esanetara.

Horrek guztiak Erromarekiko etena ekarri zuen, Errepublikaren aldetik ez ezik Konstituzio Zibil horri men egin zioten eliztarren aldetik ere. Frantzia eta bertako Eliza erdibitu egin ziren, "zismaren" aldekoen eta aurkakoen artean. Gizartean, hortaz, gatazka-arazo berri bat sortu zitzaion Errepublikari ere, eta agian epe ertain eta luzera Konkordatu berri baten premia, izan ere, politika haren ondorioz larria baitzen egoera: adibidez, 65.000 apaiz diozesitarretatik 30.000 erbestera joan ziren.

Iraultzako beroaldi handiena pasatu zenean, ordea (1794tik aurrera), eta jada Errepublikaren barruko eta kanpoko arrisku handienei armaz gaina hartu zitzaizenean, Napoleonek (Iraultzaren "seme kontserbadore garaileak") sinatu ahal izan zuen Aita Santuarekin adostutako Konkordatua (1801-1802). Horrela ireki zitzaizkion ateak harremanetarako aro berri bati.

Konkordatuaren bidez, Frantziako Diozesien geografia guztiz aldatu eta Departamentu administratiboen arabera moldatu zuten, eta Gotzaineria erabat berritu. Harez gero, Gotzainen izendapenak 1516ko Konkordatu zaharren bide beretik egingo ziren. Bestalde, desja-



betuta hartutako eliz ondasunak itzuli beharrik ez zen egongo; baina Gotzain eta Erretoreen soldatak Errepublikak bere gain hartu zituen (zehaztasun gehiagorik gabe). Onartutakoarekin, eta berehala Gobernuak Konkordatua egikaritzeko emandako "77 Artikulu organikoen" bidez Eliza katolikoa ondo loturik geratu zen Errepublikako Gobernuari. Konkordatu hori indarrean egongo da Frantziako Estatu/Elizak banatu ziren arte (1905).

Apaiz diozesitarrentzako konponbidea izan zen 1802ko Konkordatu hura, baina erlijiosoez ez zuen hark deus esaten, hain zuzen Napoleonek arazo hori albora utzi nahi izan zuelako. Ondoren, 1804an ere Enperadoreak ez zion aukerarik eman Aita Santuari Institutu Erlijiosoen legezko egoera eztabaidatu eta bideratzeko; hori gorabehera, gero, lege argirik gabe ere, irakaskuntza edo zerbitzu sozialetarako Kongregazio batzuek beren bidea egin ahal izan zuten.

Institutuak, hazi eta ito

XIX. mendean zehar, Institutu Erlijiosoen estatus juridiko-politiko bere osotasunean unean uneko politika nagusien menpe agertuko da Frantzian. Hala ere, adibidez, emakumezkoen Kongregazioek, Frantziako eliz pertsonalaren garapenean pisu handia hartu zuten. 1790ean, kleroaren barruan heren bat ziren mojak; baina geroztik, aurkako legeak gorabehera, %30 bilakatu ziren 1830ean, eta 1876an %58 (130.000ren bat lagunekin). Hauetako moja anitz atzerrira aterako dira, bortxatuta baina baita borondatez Misioetara ere: 1900 inguruan 20.000ren bat moja frantses 80 herrialdeetan banatuta zebilen.

Napoleon III.aren agintealdikoan (1851-1870) indar betean egingo dute gora Frantziako Kongregazio erlijiosoez, eta ez bakarrik emakumezkoenak: gizonezkoenak 70.000 lagun izatera heldu ziren. Egoera berria horrela zela, tradizio iraultzailearen aldeko erregimen-aldaketak (1876...) dena hankaz gora jar zezakeen, Kongregazioak eta Estatuaren laiktasuna aurrez aurre aurkitzean, eta, ondorioz, kasik ezinezko konponbide baten aurrean.

Jesulagunen izanberritzeak bereziki asaldatzen zuen frantsesen izpiritu errepublikazale laikoa; baina ez haienak bakarrik: 1845ean sortutako agustindar "jasokundetarrenak" ere bai (*Assomptionnistes*), hauen erromesaldi handi eta prentsa-indarra tarteko zirela. Gogoan izan *La Croix* egunkaria (jasokundetarrena, hain zuzen) Dreyfus arazoan bete-betean nahasi zela (1894-1906), eta ez ondorio politikorik gabe. Anti-kongregazionismoa indartuz joan zen, eta, azkenik, ostera ere Institutuek atzerrirako bidea hartu behar izan zuten (1880, 1902).

Katoliko eta errepublikazaleak gerrako lubaki beretan borrokatu ondoren (1914-1918ko Gerran), sosegu hobeko elkarrizketa eta konponbide praktikoa (1925) aurkitu ziren, eta II. Mundu-Gerrako denen arteko elkarlanak are onerago ekarri zuen giroa (1945).

Frantziako gertakari hauek gogorarazi beharra dago, Euskal Herriko erlijiosoen XIX-XX. mendeetako historia hobeki ulertu ahal izateko, eta euskal Iparralde eta Hegoaldearen arteko harreman erlijiosoak argitzeko ere.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610273580